

# Euskara Proba

## Irakurriaren ulermena

### DBH 2

Bigarren zatia

---

159

2005



## a d i b i d e a k

### Dragoiak maite zituen jauna

Ye jaunak biziki maite zituen dragoiak; gela guztietan zeuzkan eskulturetan edo pintaturik. Zeruko benetako dragoia enteratu zenean, lurrera jaitsi eta burua sartu zuen Ye jaunaren etxeko atetik eta buztana leiho batetik. Ye jaunak dragoia ikustean, erabat izaturik alde egin zuen eta ia-ia zoraturik bukatu zuen.

Izan ere, Ye jaunak ez zituen hainbeste maite dragoiak. Dragoi itxurakoa zuen gogoko, baina inola ere ez dragoia bera.

*Txinako ipuin bat*

#### 1. Zer zuen gela guztietan Ye jaunak?

- A) Zerutik jaitsitako dragoiak
- B) Benetako dragoiak
- C) Dragoiak eskulturetan edo pintaturik
- D) Txinako dragoiak

#### 2. Zein da testuaren mamia?

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

161

## j a r r a i b i d e a k

- \* Orain irakurri eta erantzungo dituzu horrelako galdera gehiago.
- \* Ez idatzi ezer koadernotxo honetan.
- \* Erantzun orrian marka ezazu erantzun zuzenari dagokion hizkia.
- \* Galdera irekietan, erantzun ahalik eta hobekien idazteko eman zaizun orrian.
- \* Egin lana ahalik eta lasterren.
- \* Saia zaitez galdera guztiei erantzuten.
- \* Orrialde bakoitza bukatutakoan, hurrengora pasa koadernotxoa amaitu arte.
- \* Okertzen bazara, erantzun hori ezaba dezakezu eta zure ustez zuzena den erantzuna marka dezakezu.

EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIALDERA PASA PROBA AZALTZEN ARI ZAIZUN PERTSONAK HORRETARAKO BAIMENA EMAN ARTE ETA BETE ITZAZU BERE AGINDUAK.

## **Biolentzi-arrastoak Neolitoko hezurretan**

*Ikertzaileek ustekabeko galanta hartu zuten arroka baten azpian hirurehun bat pertsonaren arrastoak azaldu zirenean. Duela ia 20 urte gertatu zen hori, Biasterin. Ehorzketa kolektiboa zen hura, Neolito garaiko hezurak duela 5.000 urtekoak, alegia. Hezurak oso egoera onean aurkitu zituzten gainera, seguruenik, gainean zuten arrokkak babestu zituelako.*

Hezur-kopurua hain handia izanik, oso zaila zen gorpu bakoitzari zein hezur zegozkion bereiztea. Ikertzaileek arreta handiz behatu ondoren konturatu ziren gorpuak ez zeudela luze etzanda. Guztiz tolestuta zeuden, besoekin hankei heldu eta bildu-bilduta, eta, ikertzaileen ustez, seguruenik hilobiraino errazago garraiatzeko lotuko zituzten jarrera horretan.

Hezurren artean adin guztietako pertsonak zeuden: jaioberriak, gazteak eta zaharrak. Orduko populazioen eredu ezin hobea, beraz.

### *Aztarnategi bitxia*

Aztarnategia berezia da beste arrazoi batzuegatik ere: hezurretan indarkeria-aztarnak aurkitu dituzte eta horrelako aztarnategi zaharretan oso gutxitan aurkitu dira biolentzia-arrastoak. Europan oso kasu gutxi daude, banaka batzuk besterik ez. Izatez, duela gutxi arte inork gutxi onartzen zuen garai hartarako gizakiek indarkeria erabiltzen zutenik gizakien kontra. Heriotzen errudunak goseteak eta gaixotasunak ziren. Edo, beharbada, biolentzia ere bai?


Aztarnategi honetan, 12 gezi-punta aurkitu dira hezurretan sartuta. Barruan gezi-punta bat duen besondo bat da kasurik nabarmenetakoa. Antza, geziak gizonetako bat zauritu zuen. Gezi-punta barruan geratu eta hezurak inguratu eta harraipatu egin zuen. Gizonak ez zuen gehiago mugituko beso hura segur aski. Hezurretan barneratutakoez gain beste gezi-punta asko hezurren ondo-ondoan topatu dituzte. J. Ignacio Vegas aztarnategiko zuzendariaren ustez, gezi horiek organoetan edo gorputzeko zati bigunetan sartu zirela esan nahi du horrek. Gorpuak degradatzean, punta horiek hezurren aldamenen geratu ziren, eta horregatik aurkitu dira hainbeste aztarnategian. Baina eraso bortitz bat jasan ondoren hil ote ziren hirurehun pertsona haiek? Horixe da ikertzaileek argitu nahi izan dutena.

### *Aldaketa Neolitoan*

Neolitoa oso garai garrantzitsua izan zen gizakion historian: ehizan eta fruitu-bilketan oinarritutako bizimodutik produkzio-ekonomiara aldatu zen gizartea, hau da, abeltzaintza eta nekazaritzara. Eta aldaketa horrek berebiziko garrantzia izan zuen gizakientzat. Neolitoan, gizakiak ondarearen, propietatearen zentzua hartu zuen, jabe goarena.

Lourdes Herrasti Aranzadiko ikertzailearen esanean, baliteke jabe goaren zentzuak taldeen arteko liskarrak eragitea. Biolentzia hor hasi zela diote batzuek, baina ikertzaileak ez daude ziur.

Horretarako, antzinako hezur eta hortzetatik DNA atera dute. DNA hori baliatuz, Kromosoma sexualen analisisia egin dute lehenik, eskeletoen sexua zein den jakiteko. Orain arte, morfologian eta tamainan oinarrituta egiten ziren azterketa horiek. Garezurraren, pelbisaren morfologiaren eta hezur luzeen tamainaren arabera emakumezkoak edo gizonezkoak ziren jakiten zen.



Gainera, azterketa horietan Penintsulako minbizi-kasurik zaharrena aurkitu dute. Auskalo, beraz, zenbat gauza berri aterako diren Biasteriko arroka haren azpian aurkitutako hezurretatik. Dударik gabe, informazio-iturri garrantzitsua dira garai hartako giza taldeak ezagutzeko, hau da, Neolito garaian gertatu ziren aldaketa sozial horiek guztiak hobeto ulertzeko.

**Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute**  
Elhuyar aldizkaria, 197. alea, egokitua

163

1. Zein herritan aurkitu zituzten arroka baten azpian hainbeste hezur?

- A) Neolito izeneko herri batean
- B) Aztarnategian
- C) Biasterin
- D) Ehorzketan

2. Noizkoak ziren aurkitu zituzten hezurak?

- A) Duela ia 20 urtekoak
- B) Duela 12 urtekoak
- C) Duela 5.000 urtekoak
- D) lazkoak

**3. Zergatik dio "Orduko populazioen eredu ezin hobe, beraz"?**

- A) Pertsona askoren hezurak zeudelako
- B) Hezur guztiak herri batekoak zirelako
- C) Hezurren artean adin guztietako pertsonak zeudelako
- D) Hezur kopuru handia zegoelako

**4. Gorpu hauek luze etzanda ageri dira...**

- A) Ikertzaileen ustez zuloan errazago sartu ahal izateko
- B) Horrela hilobiratu zituztelako
- C) Ezin da horrelakorik jakin
- D) Ez, tolestuta lotuko zituztelako

**5. Zer esan nahiko luke hezurren ondoan gezi-puntak aurkitu izanak?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

**6. Zer lotura du, Lourdes Herrastiren ustez, Neolitoan emandako aldaketak agertuta-ko biolentzia aztarnekin?**

- A) Neolitoan gerla asko ematen zirelako
- B) Neolitoan ehizatzeke geziak erabiltzen zituztelako
- C) Neolitoko jabego zentzuak borrokak sortu zituelako
- D) Neolitoan geziak asmatu zituztelako

**7. DNA frogei esker badakigu...**

- A) Hildakoak nongoak ziren
- B) Zein sexutakoak ziren
- C) Zein morfologia zuten
- D) Zer tamainatako hezurak zituzten

**8. Zein da ondorengo baieztapenetan gezurra?**

- A) Penintsulako minbizi-kasurik zaharrena aurkitu dute
- B) Aztarnategia iturri garrantzitsua da garai hartako giza tadeak ezagutzeko
- C) Hezurretan ikusten diren zauri guztiak hilgarriak izan ziren
- D) Oraindik gauza berri gehiago atera daitezke hezurren azterketatik

**9. "Ehorzketa" hitzaren sinonimoa**

- A) Hilketa
- B) Lurperaketa
- C) Pilaketa
- D) Biolentzia

10. Testuari amaiera emateko, egokia iruditzen al zaizu azken esaldia (“Dudarik gabe, informazio-iturri garrantzitsua dira garai hartako giza taldeak ezagutzeko, hau da, Neolito garaian gertatu ziren aldaketa sozial horiek guztiak hobeto ulertzeko.”)? Zergatik?

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

11. Egin ezazu testuaren eskema edo kontzeptu mapa

ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN

HURRENGO ORRIALDERA **PASA** →

**:: Andoingo Zine eta Bideo Eskola ::**

**2005/2006 IKASTURTEA - Ikasleen Onarpena**

Heziketa Zikloak  
Goi eta Erdi Mailako titulazio ofiziala

**ZINE eta BIDEO  
ESKOLA (Andoain)**

**ALDEZ AURREKO  
IZEN - EMATEA**



**ERDI-MAILAKO PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK**

- IRUDI-LABORATEGIAN** Erdi Mailako Teknikaria A Eredua

**GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA-ZIKLOAK**

- ERREALIZAZIOAN** Goi Mailako Teknikaria A/D Eredua  
EUSKARAZ EGITEKO AUKERA IKASTURTE HONETATIK AURRERA
- PRODUKZIOAN** Goi Mailako Teknikaria A Eredua
- SOINUAN** Goi Mailako Teknikaria A Eredua
- IRUDIAN** Goi Mailako Teknikaria A Eredua

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko:

**Ekainaren 1etik 8ra**

**Informa zaituz**  
943 59 41 90  
[www.escivi.com](http://www.escivi.com)  
secretaria@escivi.om

 **:: Andoingo Zine eta Bideo Eskola ::**  
Ama Kandida, 21. 20140 Andoain. Tel 943 594190  
Idazkaritza ordutegia Betatik 13etara eta 15etatik 18etara





**12. Zein da testu honen igorlea?**

- A) Andoaingo udala
- B) Ama kandida
- C) Zine eta Bideo Ministerioa
- D) Andoaingo Zine eta Bideo Eskola

**13. Nor da testuaren hartzailea**

- A) Unibertsitateko ikasleak
- B) Andoaingo gazteak
- C) Aktore izan nahi dutenak
- D) Lanbide Heziketako ikasketaren bat egin nahi dutenak

**14. Zein da iragarki honen asmoa?**

- A) Zerbait erakustea
- B) Zinea bultzatzea
- C) Dirua gastatzea
- D) Informazioa emanez konbentzitzea

**15. Idatzizkoa ez den bestelako baliabideren bat erabiltzen al du?**

- A) Bai, baina bat besterik ez
- B) Ez, hitzezkoak soilik
- C) Bai, baliabide desberdinak
- D) Bai, argazkiz beterik dago

167

**16. Aipatu testuan erabili diren 4 baliabide jendearen arreta erakartzeko.**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

HURRENGO ORRIALDERA **PASA** →

Egia bat esateagatik,  
 alabak  
 hil behar bazaizkit,  
 andrea  
 bortxatu behar badidate,  
 etxea  
 lurrarekin  
 berdindu behar bazait;  
 Egia bat esateagatik,  
 ebaki behar badidate  
 nik eskribitzen  
 dudan  
 eskua,  
 nik kantatzen  
 dudan  
 mihina;  
 Egia bat esateagatik,  
 nire izena kenduko badute  
 euskal literaturaren  
 urrezko  
 orrietatik,  
 inoiz,  
 inola,  
 inun  
 ez naiz  
 isilduko.

**Gabriel Aresti**  
*Harri eta herri*

168

17. Zer esan nahi du poetak “egia bat esateagatik alabak hil behar bazaizkit” esaten duenean?

- A) Egia bat esateagatik alabak bere burua hil dezakeela
- B) Egia bat esateagatik alabak hil diezazkioketela
- C) Egia bat esateagatik alabak norbait hil dezakeela
- D) Egia bat esateagatik alaba haserretu daitekeela

18. Zer esan nahi du poesian “etxea lurrarekin berdindu behar bazait ” esaten duenean?

- A) Etxea saldu egin beharko duela
- B) Etxea lurrez beteko diotela
- C) Etxea suntsituko diotela
- D) Etxea lur gainetik kendu egingo dutela

**19. Zein da poesia honek helarazi nahi duen mezua?**

- A) Egia hil egin da
- B) Literatura zoragarria da
- C) Behartzen badute ez du egjarik idatziko
- D) Mehatxuen aurrean egia esaten jarraituko du.

**20. Nola banatuko zenuke poema hau bi zatitan? Zergatik?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

